

## PLENOA GAUR UDALETXEAN

### Musika Eskola, Haur Eskola eta Euskaltegiko zuzendariak izendatuko dituzte

■ Iñaki Barrio EA-EAJ-ko zinegotziaren kontrako pintadak dirlela-eta, zenbait karguk jasaten dituzten mehatxuei buruzko mozio bana aurkeztuko dute EH-k eta EA-EAJ-k.

GAURKO Plenoan 8 puntu izango dira eztabaidatu eta onartzeko: ekainaren batetik uztailaren hogeira hartutako zenbait erabakiren berri emango da hasieran; Musika Eskola, Haur Eskola eta Euskaltegiko Zuzendariak izendatuko dira; Ongintzako Kredituen aldaketarako espedientea eztabaidatuko da; eta bukatzeko mozio bana aurkeztuko dute EH eta EA-EAJko udal taldeek:

- EHk udaleko hainbat karguk jasaten dituzten mehatxuak Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoan kokatzen ditu. Era honetako ekintzak berriro gerta ez daitezen baldintzak sortzea eskatzen dute. -EA-EAJk Iñaki Barrioren kontrako pintadak direla-eta, "Hernaniko politika aniztasunaren adierazpena zapuztu nahian" dabilzala dio. Zenbait politikok babesa behar dutela ere gogoratzen du. □

#### BI MOZIOAK (LABURTUTA)

##### EHko udal taldea

Legegintzaldi hasieratik, Udal honetako hainbat karguk (EH, EA-EAJ, PSOE) mehatxu larri eta ugari jasan izan dituzte.

Tankera honetako ekintzak Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoan kokatzen ditugu. Korporazio honen ardura da gainontzeko eragile sozial eta politikoekin batera, baldintzak sortzea era hontako ekintzak berriro gerta ez daitezen. Gatazka honen irtenbidea gauzatzeko elkarrizketa, indar abertzale eta aurrerakoien arteko lana eta gure Herriak bere etorkizunaren jabe izateko eskubidearen aitortzearekin lortuko da soilik.

Hau guztiagatik udalbatzari proposatzen zaio.

1.- Beharrezkoa deritzogu lan egitea era honetako ekintzak berriro gerta ez daitezen.

2.- Euskal Herriak bizi duen gatazka, politikoa dela aitortzea.

3.- Gatazka honi irtenbidea bilatzeko neurri politikoak hartuz soilik gaindituko dela.

##### EA-EAJko udal taldea

1.- Ezin onar dezakegu Hernaniko biolentoak iritzi desberdinekoak direnei edo beste alderdi politikoetako ordezkariei direnei mehatxuka jarraitzea.

2.- Ezin onartuzkoa iruditzen zaigu isiltasuna, ezkutuko justifikazioa eta horrelako gertaeren kontestualizazioa, elkarbitza suntsitzen dutelako eta hau guztia jasan beharrean dauden duintasuna ahultzen dutelako.

3.- Presazkoa eta beharrezkoa da, botere publikoek, jarrera irekia erakutsiz eta aho batez garbi adieraziz, mehatxatuak eta talde hauen intimidazioa jasan behar duten pertsonak babestea.

4.- Beraz, Iñaki Barrio EA-EAJko zinegotziari eta bere senitartekoei gure elkartzun osoa agertzea erabakitzen dugu, eta, bidebatez aditzera ematen, Udal hau prest dagoela, aurrerantzean horrelako ekintza gehiago ez gertatzeko hartu beharreko neurriak hartzeko.

## ARRAUNA

### Hernani-Ubis Donibanekotik 44 segundura sartu zen, atzo Pasaian

■ Zapigarren iritsi zen estropada txukuna eginda ■ Koxtape-Iberdrolako ikurrina Donibanek irabazi du eta Santiagotarrak gelditu dira bigarren hiru segundutara.



Donibaneko trainerua helmugara bidean, atzo Pasaian.

HERNANI-UBISEK estropada txukuna egin zuten atzo Pasaian. Kartela ikusita, hernaniarrek ez zuten lan erraza beste zapietako edozeini aurre hartzen, baina, egin zuten. Beren tandan Ur-Joko, Hondarribi eta Zierbena atera ziren. Denborarik onena bizkaitarrek egin zuten, 21' 05", hernaniarrek baino 19 segundu gutxiago. Lehen ziabogetan Hondarribiri 3-4 segundutara eutsi zion, baina azkenean, Guda-lupekoek alde.

#### PASAIAN BERRIZ

Hernani-Ubisek hurrengo estropada ere Pasaian du, hilaren 31ean. A Ligan aurrena diojana, Koxtape, han izango da. □

#### SAILKAPENA

1	Donibaneko	20' 39"
2	Arkote-Elantxobe	20' 42"
3	Santiagotarrak	20' 54"
4	Ur-Kirolak	21' 00"
5	Zierbena	21' 05"
6	Hondarribi	21' 16"
7	Hernani-Ubis	21' 24"
8	Ur-Joko	21' 43"

## JUBILATU EGOITZA

### Txillida Leku, Oiartzun eta Honbarribira eskurtsioa jubilatuentzat

■ Eskurtsioa abuztuaren 23an da ■ Izena emateko epea bihar zabaldu eta autobusa bete artekoa da.



Txillida Leku gia eta guzti ikusteko aukera dute jubilatuek.

JUBILATU egoitzak egun osoko eskurtsioa antolatu du abuztuaren azkenerako. Goizean, Txillida Lekura joango dira, gia eta guzti. Zabalagako museoa ikusi ondoren, Oiartzunera joango dira bazkaltzera. Arratsalde pasa, berriz, eguraldi ona bada, Hondarribira eta bestela, Irunera.

**AUTOBUS BAKARRA ETA ZOZKETARIK EZ**  
Jubilatu Egoitzak Kronikari

jakinarazi dionez, eskurtsiorako autobus bakarra aterako da. Horregatik, izena ematea ostiralean zabaldu eta autobusa betetzen denean bukatuko da. Ez da, beraz, beste batzuetan bezala izena ematen dutenen artean zozketarik izango.

Izena ematea 3.000 pta kostako da eta Jubilatutako Egoitzan bertan egin behar da, bihurtik aurrera. Autobusa Atsegindegitik aterako da 10:45etan. □

## OLAIA KASTRESANAREN HERIOTZA

### AAB-k 'Borroka eguna' eta mobilizazioak deitu dituzte

■ Olaia Kastresana ustezko ETA kidearen heriotza dela-eta, Amnistiaren Aldeko Batzordeek *Borroka eguna* deitu dute gaurko Euskal Herri osoan. Hernanin bi manifestazio konbokatuko dituzte: eguerdiko 13:00etan eta arratsaldeko 20:00etan. Bestalde, AAB-k balkoietan ikurrinak krespoi beltzarekin jartzeko deia egin dute.

Atzorako, berriz, Batasunak eskualde mailako manifestazioa deitu zuen zortzietarako Hernanin. □



Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua MATXIN III - BADIOLA / ZALAKAIN - AIZPURUA II
- ⇒ 2. partidua EZKURRA - URRETABIZKAIA II / ZEBERIO II - LIZASO
- ⇒ 3. partidua ELIZALDE - AIZPURU / IRIBARREN - IRIARTE
- ⇒ 4. partidua LEZEA - EZEIZA / ZEBERIO I - ETXEBERRIA III- SARASUA

## Foru Aldundiak Errugbi Elkartea eta Jose Mari Garin korrikalaria saritu ditu aurtengo garaipenengatik

■ Hernaniko kirolariek batera, Gipuzkoa osoko 45 kirolari eta 4 ekipo saritu zituen Diputazioak, urtero antolatzen duen eskerronezko omenaldian.



Errugbilariak eta Jose Mari Garin beren sariak jaso ondoren.

HERNANIKO Errugbi elkarteak eta Jose Mari Garin korrikalariak beren lan eta sariengatik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskerrona jaso zuten atzo. Foru Aldundiak estatuko txapelketa irabazi dutenei edo, bestela, European edo mundu mailan lehen hiru aurrenekoetan sailkatu direnei eskaintzen die sari hori.

### SAKRIFIZIOA ETA TALDE LANA

Roman Sudupe Diputatu nagusiak kirola egiten duten gazteen sakrifizioa eta talde lana nabar-

mentu zituen ekitaldi hasierako hitzaldian. "Sakrifikatzen eta taldean lan egiten dakiten gazteek guk baino hobeto erantzungo diote gizarteari," esan zuen Sudupek. Bestalde, gazteen % 80 kirolen bat egiten omen du eta kirola egiten duen herria herri sanoa izango dela dio EAJ-ko Diputatuak.

### JUBENILETAN TXAPELA

Errugbi elkarteak jubenilen taldearekin estatuko txapelkun gelditu da aurtun Madrilen. Jokalari eta arduradunak gustora zeuden asteartean. "Be-

rriz holako denboraldia egite-rako pasako dira urte batzuk" esaten zuen arduradun batek. Errugbi elkarteak orain bi urte jaso zuen Foru Aldundiaren beste sari bat.

### GARIN BIZKORRENA 76 URTEREKIN

Jose Mari Garin korrikalari beteranoak bere garaipen bikoitzagatik jaso zuen saria. Garin estatuko txapelduna da betereanoetan, 800 eta 1.500 metrotan.

Ekainean Salamancan jokatutako probetan hernaniarrak ez zuen kontrariorik izan. □



Ezkerreko argazkian, Roman Sudupe Jose Mari Garini saria ematen. Eskubikoan, Garin sariarekin.



## Kantu afaria bihar Santa Barbara elkarteak

■ Morkaiko kultur elkarteak antolatu du ■ Sarrerak Garin tabernan daude salgai, 2.000 ptan.

MORKAIKO kultur elkarteak urtero antolatzen du ekitaldiaren bat San Inazio aurreko astean: bertso afariak, kontzertuak... eta aurtun kantu afaria antolatu du. Ideia Aranotik hartu dute. Korrika zela-eta Aranon antolatu zuten lehenbizi. Ideia gustatu eta Morkaiko Hernanin egingo du, Santa Barbara elkartearen terrazan.

### ANSA AHIZPAK


Afalondoren, antolatzaileek kantu zahar eta berriekin fotokopiak banatuko dituzte jendearen memoriari laguntzeko. Denera, 30 kantu inguru. Kantu afaria Ansa ahizpen abotsek zuzenduko dute.

Kantuez gain, Txirritaren bertso zaharrak ere izango dira Santa Barbarako terrazan. □

### JAI EGUNEN AUZIA

## Borondatezkoa izan zen atzo udalean lanera joatea

■ Epaitegietatik, juiziora artean, lan egutegia Jaurilaritzaren egutegira egokitzeko agindua dago.



Udaleko bi langile lanean atzo.

SANTIAGO, Pilar eta Konstituzio egunak lan egun izendatzea erabaki zuen Hernaniko udalak, iaz bezala. Langileen komiteak hala eskatuta hartu zuen erabakia Udala Gobernuak.

### GAIA EPAITEGIETAN

EA-EAJko zinegotzien eskaria kontutan hartuaz Eusko Jaurilaritzako Administrazio zuzendariak gaia epaitegietara eramanean, egutegi berriak Errege Dekretuak onartzen duen langileen araudia eta

Jaurilaritzak onartutako egutegi ofiziala hausten dituela-eta. Kontentzioso Administrazio botik juizioa egin artean jai egutegia Jaurilaritzak onartutako egutegi ofizialera egokitzeko agindua iritsi da udalera.

### LANERA JOATEA BORONDATEZKOA

Atzo, Santiago eguna, borondatezkoa izan zen lanera joatea Hernaniko udaleko langileentzat. Herritarrentzat zenbait zerbitzu irekita egon ziren beraz. □

## 5.000 PTA URTEAN KRONIKAREN ALDE

**IZAN ZAITEZ ZU ERE LAGUNTZAILE**

**DEITU 943-330899**

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimok 943 331103

#### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri, Florida ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Gil Lasarte, Nagusia, 24 ☎ 943 361529